



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 25a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaegin deklaritzen dituena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkeztu dute (10. or.).
- Foru Lege proposamena, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako sinboloari buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea aldatzen duena. Proposamena erretiratzea (18. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren eta finantzaketa egonkorra ezar dezan “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiaren gain, Espainiako ereserkiaren ere jo dadin. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Fundación Camino de la Lengua Castellana” fundazioan sar dadin. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (21. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Sarrigurengo Emakumeari Laguntzeko Zentroa irekitzeko aurreikusitako egunari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko zein neurritan eragiten dion hezkuntza sistemaren kalitateari bi ordu baino gutxiagoko lanpostuak izateak, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (23. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak ez dien uzten egoera irregularrean dauden 18 urtez gorako ikasle etorkinei zentro publiko batean matrikulatzen, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (23. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen berdintasun teknikariak kontratatze aldera toki entitateei ematen dien diru-laguntza murrizteko, Patxi Leuza García jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Mendialdea 1 eta 2 ikastetxeetako ikasleen garraio-zerbitzua kentzeari buruzkoa, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, toki entitateei “Tokiko Agenda 21” programako proiektuetarako diru-laguntzak ordaintzeari buruzkoa, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko kideen berritze partzialari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (25. or.).
- Galdera, gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen duen 012 zerbitzuari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (27. or.).
- Galdera, unibertsitate tituludunek praktikak egin ahal izateko programari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta erakunde hori osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, betetako gastuari buruzkoa, José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Tuterako Ospitaleko gaueko osasun-garraioa kentzeari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (30. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak bermatzen ote duen datozen aurrekontuetan ez duela jaitsiko zerbitzu publikoen diru-horniketa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (30. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik utzi den bertan behera anbulantzia-zerbitzua Reina Sofía ospitaleko larrialdietako zerbitzuan, gaueko hamarretatik aitzina senda-agiria jasotzen duten gaixoentzat, Marisa De Simón Caballero andreak egina (31. or.).
- Galdera, jakiteko zer erabaki hartuko dituen Nafarroako Gobernuak, Alderdi Popularra Madrilén gauzatzen ari den murrizketa-politikak ikusita, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (32. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2012ko eztabaida dela-eta (33. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezen agindu dut. Proiektu hori 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. 12/1997 Foru Legearen 4. artikuluko b) letra honela geldituko litzateke:

“b) Nafarroan dauden maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatuetako irakasleen bost ordezkari, honela banatuta:

Ikastetxe publikoen hiru ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako irakasleen Langileen Batzordean ordezkari gehien duten hiru sindikatuetatik bana, beraiek aukeratu beharrekoak.

Ikastetxe pribatuen bi ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza pribatuan ordezkari handiena duten bi sindikatuetatik bana, nork berea aukeratu.”

Zioak: Epai bat baino gehiago atera da esaten duena ordezkatzailleena (más representativa) dioen lekuan “ordezkari gehien duena” esan behar duela.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrak aldatzen duen 4. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“d) Nafarroako maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleen bi ordezkari, ikasleen elkarteek edo elkarten federazioek proposatu eta bakoitzak duen ordezkariaren arabera aukeratuak. Leku horietakoren bat hutsik geldituko balitz, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari eskainiko zaio.”

Zioak: Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak interesa agertu du ikasleen ordezkari gisa parte hartzeko plazaren bat hutsik geldituz gero; izan ere, Eskola Kontseiluan ikasleentzat erreserbatutako lekuak, normalean, ez dira betetzen, gutxi baitira erdi mailako ikasketetako ikasleen elkarteak.

Beste erkidego batzuetan hala egiten da, eta Gazteriaren Kontseiluak Eskola Kontseiluan parte hartzea lagungarria da atzeraelikatzea gerta dadin, eta, hala, arlo sozioekonomikoko jardueren eskaintza hobetzeko, Hezkuntzako talde bat jarri nahi baita arlo horretarako.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari beste letra bat gehitzeko zuzenketa, d) eta e) letren artean.

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren ordezkari bat.

Zioak: Txikia da ikasleen ordezkariak.

4. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

h) letraren orde, hau jartzea:

“Irakaskuntzaren arloan izen handikoa den pertsona bat, zeina Nafarroako Eskola Kontseiluan hautatuko baita, gehienez ere hiru pertsonaren artean; hautagai horietako bakoitza Nafarroako Eskola Kontseiluko gutxienez ere bost kidek proposatu beharko dute.”

Zioak: Demokratikoagoa da hautagai bat baino gehiago izatea aukeratzeko.

5. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letra ordezteko zuzenketa.

“h) Pedagogiaren arloan izen handiko pertsonen artean aukeraturiko ordezkari bat, Nafarroako Gobernuaren proposamenari jarraikiz izendatua.”

Zioak: Garrantzitsua da arlo pedagogikoak ere lekua izatea Nafarroako Eskola Kontseiluan.

6. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letra ordezteko zuzenketa.

“h) Unibertsitateetako hiru ordezkari: bat Nafarroako Unibertsitate Publikokoa; beste bat Nafarroako Unibertsitatekoa; eta beste bat Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalekoa.

Zioak: Nafarroako hiru unibertsitateetako ordezkariak ziurtatzea; beharrezkoa da Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala ere hor sartzea, duen berezitasunagatik eta gaur egun gero eta eskari handiagoa izateagatik.

7. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

4. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letra ordezteko zuzenketa.

“g) Toki entitateetako bi kide, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak. Ordezkari bat hiri-eremukoa izanen da, eta bestea landa-eremukoa.”

Zioak: Landa-inguruetako udalek Eskola Kontseiluan ordezkari izatea ziurtatzea, berezia delako beren errealitatea, bereziak beren hezkuntza-beharrak, eta, Nafarroako lurraldean nola dauden banatuta ikusita, haien ordezkari handia delako.

Eskola Kontseiluko webgunearen arabera, udal ordezkariak Lerin eta Valtierra dira; batak 1.863 biztanle ditu, eta besteak 2.547. Nafarroako udal errealitateari begiratuta, ez dirudi oso ordezkariak orekatua.

Nafarroako Gobernuaren webgunearen arabera, eta udalerrien tamainari erreparatuta, populazioaren ehuneko 42,3 bizi da 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, hau da, Iruñean, Tuteran eta Barañainen; ehuneko 39,2, berriz, 2.000 eta 20.000 biztanle artekoetan; eta ehuneko 18,5, azkenik, 2.000 biztanle baino gutxiagokotan.

8. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

j) letraren orde, hau jartzea:

“Nafarroako Parlamentuan gutxienez bi ordezkari dituzten zenbat parlamentu-talde dauden, Hezkuntza Batzordeko horrenbeste kide.”

Zioak: Garrantzitsua da parlamentu-taldeek parte hartzea Eskola Kontseiluan izaten diren eztabaidetan eta hartzen diren erabakietan, Nafarroako herritarren ordezkariak baitira, eta garrantzitsua, halaber, beren proposamenak eta ekimenak aurkez ditzaten.

9. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarrak aldatzen duen 4. artikuluko j) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“j) Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko talde ezberdinetako lau kide, Batzordeak izendatuak, halako moduan non ez baitira izanen soilik Gobernuan dauden alderdiei dagozkien parlamentu-taldeetakoak.”

Zioak: Iritzi-aniztasuna ziurtatu nahi badugu, Gobernuan ez dauden bestelako talde batzuei ere parte hartzen utzi behar zaie.

10. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. 12/1997 Foru Legearen 4. artikuluko j) letra honela geldituko litzateke:

j) Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko talde politiko bakoitzeko ordezkari bat”

Zioak: Parlamentuko ahalik eta ordezkari gehien izan behar da Nafarroako Eskola Kontseiluan. Aniztasunaren izenean, behar-beharrezkoa da Parlamentuan dauden pentsamolde guztiak, espeziorik gabe, ordezkatuak egotea.

Azkenean bi ordezkari izendatu beharrak Gobernuaren proposamenaren arabera, 1997tik argi adierazi du aniztasunaren kaltetan dela, eta bi ordezkari, salbuespenik gabe, ez dutela Parlamentuaren aniztasuna ordezkatu izan.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letra ordeztzeko zuzenketa.

j) Nafarroako Parlamentuan ordezkari gehien izan behar duen talde politiko bakoitzeko ordezkari bat”

Zioak: Nafarroako Parlamentuko ordezkari gehien izan behar duen talde politiko bakoitzeko ordezkari gehien izan behar da Nafarroako Eskola Kontseiluan. Aniztasunaren izenean, behar-beharrezkoa da Parlamentuan dauden pentsamolde guztiak, espeziorik gabe, ordezkatuak egotea.

12. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. 12/1997 Foru Legearen 4. artikuluko k) letra honela geldituko litzateke:

k) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien duen enpresaburuen elkarteak proposaturiko ordezkari bat”

Zioak: Epai bat baino gehiago atera da esaten duena ordezkatzailerena (más representativa)

dioen lekuan “ordezkari gehien duena” esan behar duela. Subjektibitatearen tartea kendu behar zaio.

13. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. 12/1997 Foru Legearen 4. artikuluko l) letra honela geldituko litzateke:

l) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien duen lau sindikatuek proposaturiko ordezkari bana”

Zioak: Azken urteotan, sindikatuen artean sindikatu berberak izan du ordezkari gehien izan behar duen talde politiko bakoitzeko ordezkari gehien izan behar da Nafarroako Eskola Kontseiluan. Aniztasunaren izenean, behar-beharrezkoa da Parlamentuan dauden pentsamolde guztiak, espeziorik gabe, ordezkatuak egotea.

14. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

ñ) eta o) letren orde, hau jartzea:

“Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako bost ordezkari, ikastetxe horietako irakasleen eta bestelako langileen artean hautatuak.

Ordezkari horiek Nafarroako irakaskuntza maila ez-unibertsitarioko irakasleak edo bestelako langileak izan behar dira, funtzionarioak betiere. Bost urterako izendatuko dira Nafarroako Eskola Kontseiluko kide izateko aurkezten diren hautagaien artean, horretarako ezarriko den prozedurari jarraituz”

Zioak: Zuzendariak ikastetxe publikoetako kudeatzaileak dira, eta, halaber, solaskide aritzen dira ikastetxe publikoetako langileen eta Hezkuntza Administrazioaren artean ikastetxeen antolamendu-gaietan; gainera, koordinatzaile pedagogikoak ere badira. Hala ere, beren ekimen gaitasuna eta proposamenak egiteko gaitasuna ordezkatu gabe daude. Zuzendarien elkarteek ez dituzte ikastetxe publikoak ordezkatzeko, ezta ikastetxe horietako irakasleen ekimenak, proposamenak eta iritziak ere.

Bestalde, Nafarroako Eskola Kontseilua sortu zenetik, aldatzen joan dira Administrazioak Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien izan behar duen talde politiko bakoitzeko ordezkari bat”

roako Eskola Kontseiluan zuen ordezkartzaren ezaugarriak eta eginkizunak; hasieran, ikastetxe publikoen titular gisa aritzen zen Administrazioa. Uneotan, ez da horrela, eta funts publikoekin mantentzen diren ikastetxe guztien kudeatzaile gisa aritzen da, halako moduz non ikastetxe publikoek ordezkartza txikiagoa baitute.

Ikastetxe itunduei dagokienez, enpresaburuen elkarteak eta ikastetxe pribatuen titular diren entitateak ordezkartuta daude jadanik.

15. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste letra bat, q), gehitzeko zuzenketa. 12/1997 Foru Legearen 4. artikuluko q) letra hone-la geldituko litzateke:

“q) Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua proposatutako ordezkari bat”

Zioak: Nafarroako bi hizkuntza ofizialen arteko oreka kontuan izatekoa da Nafarroako Administrazioaren edozein eremutan. Jakina da euskaraz aritzen diren ereduak eta gazteleraz aritzen direnak ditugula, eta horietan, askotan, adituen laguntza behar da ereduaren eta hizkuntzen ohiko hezkuntza funtzionamendurako.

Hortaz, euskaraz aritzen diren ereduaren aholkularitza egokia izateko, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskararen gainean lanean ari diren erakundearen artean ordezkartza bat izatea. Kasu honetan ordezkartza hori biltzen duen Kontseiluaren gainean utzi behar delakoan gaude; izan ere, haiek dira euskararen erakunde ia guztiak ordezkartzen dituztenak.

16. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste letra bat, r), gehitzeko zuzenketa. 12/1997 Foru Legearen 4. artikuluko r) letra honela geldituko litzateke:

“r) Berdintasun teknikarien ordezkari bat, Nafarroako berdintasun teknikarien artean aukeratutako dena”

Zioak: Kontuan izanik hezkuntza berdintasun politikak duten garrantzia, ezinbestekoa da berdintasunaren aldeko eragileek Eskola Kontseiluan partaidetza izatea, betiere genero ikuspegia izan dezaten Eskola Kontseiluak burutzen dituen lan guztiek.

Hein horretan, Nafarroako udaletan zein Gobernuan dauden teknikari ezberdinen artean izendatu beharko litzateke ordezkari hau. Profil teknikoaz azpimarratzea garrantzizkoa da.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“Letra berria) Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuko ordezkari bat, edota Nafarroako Gobernuaren generoko indarkeriaren arloan eskuduna den organismokoa.”

Zioak: Generoko indarkeriaren arloko prebentzio-irizpide eta -politikak sartzeko unibertsitatez besteko irakaskuntzan.

Estatuko Eskola Kontseiluak duen osaketari egokitzea Nafarroako araudia.

18. ZUZENKETA

Parlamentu-talde Popularra

4. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“Letra berria) Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren ordezkari bat”

Zioak: Zenbait autonomia erkidegotako eskola kontseiluek, jadanik, ordezkari gisa dituzte Gazteriaren Kontseiluko ordezkariak, ikasleen ordezkari ez gain. Konparazio baterako, Euskal Autonomia Erkidegoan, Murtzian, Gaztela eta Leonen, Andaluzian eta Kantabrian.

Nafarroako Gobernuak lege proiektuari buruz eginiko txostenak ere jasotzen du Gazteriaren Kontseiluak berak aurkeztutako alegazio bat, non adierazten baitzuten Eskola Kontseiluan parte hartu nahi luketela.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarraren ordezkari, hau jar-tzea:

“Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako ordezkarien inkorporazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioko ikastetxeetako bost ordezkariak izendatu bitarte, Nafarroako Eskola Kontseilura inkorporatuko dira, ordezkaritza horrekin, orain kide diren zuzendariak, bai eta, orain, irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonak diren aldetik izendatuta dauden kideak ere.

Zioak: Zuzenketa bat proposatu dugunez maila ez-unibertsitarioko ikastetxeetako zuzendarien ordezkariak egon daitezzen, xedapen iragankor bakarra ere zentzu berean dago aldatu beharra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Ondarearen gaineko Zerga, zeina lehen Ondarearen gaineko Zerga Berezia deitzen baitzen, asko aldatu da azken urteotan. Hasiara batez, eta diru-bilketaren zenbateko osoan duen pisu erlatibo gorabehera, informazio-iturri handia izan zen ogasunarentzat. Berrikiago, Estatuak pentsatu zuen zergak ez zuela garrantzi handirik ongialdi ekonomikoan, eta indarrean segitu zuen, baina

zeharo deuseztatu zen bere diru-bilketarako ahalmena, zerga deklaratzeko beharra ekiditeraino.

Foru Komunitatea, gainontzeko erkideek bezala, Estatuaren erabakiari lotu zitzaion. Halere, krisi ekonomikoa heldu denean, lurraldearen zati handi batean partzialki berreskuratu da Ondarearen gaineko Zerga, ageriko arrazoi batengatik: diru-bilketaren optimizatzea, diru-sarreraren galera orokortuari aurre egin ahal izateko eta zerbitzu publikoen arreta mailari eutsi ahal izateko. Testuinguru honetan ulertzen da Nafarroako Parlamentuak zerga hori hein batean berreskuratzea erabaki izana abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legearen bidez.

Beharrizan horietaz gain, hor dago “dirutza handiak” izenekoak bereziki kargatzearen komenigarritasunari buruzko eztabaida ere. Badira arrazoiak, eztabaida horri ekiteko ez ezik, bidea irekiko duten hau bezalako neurri fiskalak ezartzeko: ekitate eta gehikortasun fiskal handiagoa bilatzea eta elkartasun-ahalegina eskatzea gehien dutenei, lanpostu berriak sortzera bideratutako dinamizazio-politika ekonomiko bati ekin ahal izateko nahiz Ongizatearen Estatuaren kalitate-mailari eutsi ahal izateko.

Foru lege proposamen honek 700.000 eurotik 311.023 eurora jaisten du salbuetsitako gutxienekoa. Izan ere, azken zenbateko hori jo daiteke izan daitekeela norberaren eta familiaren lanak ekarritako ondare baten eta zenbait belaunalditako metaketa askok ekarritako ondarearen arteko aldea.

28. artikulua jatorrizko testuak –2007ko abenduaren 31n, hau da, zerga kendu aitzin indarrean zenak– 150.253 euroan ezarri zuen, zergadun guztientzat, salbuetsitako gutxienekoa, eta 300.506 eurotan, berriz, kopuru horretatik beherako ondarea zutenentzat.

Araubide horren arabera, 150.000 eurora bitarteko ohiko etxebizitza salbuetsita zegoen, eta araubide berriarekin salbuetsita egoten jarraitzen du 300.000 euroko baliora arte.

Alegia, proposatutako araubidearekin zergatik salbuetsita egoten jarraitzen du ohiko etxebizitzak, bere balioa bikoiztu egiten baita, eta % 66 murrizten da salbuetsitako gutxienekoa, salbuetsitako bi gutxieneko sortu beharrik gabe. Hartara, lehenetsi egiten dira ondare ertainak eta ohiko bizilekuak, ondare handien eta dirutza handien aldean. Eta diru-bilketa txikiagoa izanen da, baina 2008az aurrekoaren antzekoa.

Artikulu bakarra. 28. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauexekoa izanen da:

“1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 311.023,76 euro murriztuko da.

2. Tributuak bai betebeharraren pertsonalarengatik bai betebeharraren errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboak aplikatzeko izanen da aurreko idatz-zatian ezarritakoa.”

Azken xedapena. Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta 2012ko ekitaldi fiskalean izanen ditu ondorioak.

Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezinak deklaratzeko dituenak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituenak

ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak ezartzen du gizarte zerbitzuak eskuratzea unibertsala dela. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ere unibertsaltasun bera aitortzen die mendetasun egoeran dauden pertsona guztiei, diskriminaziorik gabe eta egiazko berdintasun baldintzetan. Bi lege horiek egungo gizartearen beharrezan erantzuten diete, eta Ongizatearen Estatuaren laugarren zutabea sendotzen dute hartara. Halatan, 15/2006 Legeko 19. eta 20. artikuluetan aurreikusten den gizarte zerbitzuen zorroak ezartzen ditu herritarrek zer prestaziotarako eskubidea duten, halako moduan non eskubide subjektibo hori administrazioei exijitu ahal izanen baitaie.

Prozedura Zibilaren Legeko 605. artikulua ezartzen du ezin direla inola ere enbargatu legeko xedapenen batek esanbidez enbargaezintzat jo dituen ondasunak. 607. artikulua ezartzen du enbargaezina dela zenbateko jakin bat gainditzen ez duen soldata, pentsioa, ordainsaria edo parekoa. Are arrazoi handiagoarekin, pentsatu behar da kontzeptu horien baliokidea dela bermatutako prestazio publiko bat, ezaugarri dituen oinarritzko

beharrizanak betetzea, gizarte-bazterketan dauden pertsonen edo familien gizarteratzea sustatzea izaera osagarriarekin eta indarreko legedian ezarritako bestelako baliabide eta prestazioen osagarri, edo laguntzea pertsonak gutxieneko batzuk izan ditzan bere autonomia pertsonala edo oinarrizko herritar-eskubideak garatzeko.

Administrazio publikoen egitekoa da herritarren oinarrizko beharrizanak –arestian azaldutakoak, esaterako– betetzea, funts publikoen ekarpen zuzen eta finalista eginez, eta horien xedea eta helburua ziurtatuz. Gizarteratze errentaren zenbatekoak “enbargagarriak” dira gaur egun, eta horrek zeharo desitxuratzen du izaera finalista, eta gerta daiteke aurrekontu eta finantza arloko ahalegin publikoak, izaera sozial hutsekoak, hirugarrenen asmoak betetzea azkenean, nahiz eta hirugarren horiek ez izan aipatu laguntzen xede.

Beste horrenbeste esan daiteke Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako prestazio bermatuei edo ikasteko beka eta laguntzei buruz. Kasu horietan guztietan izanen litzateke aplikatzekoa foru lege hau.

Artikulu bakarra.

1. Oinarrizko errenta eta gizarteratze errenta enbargaezinak izanen dira ondorio hauetarako, kasu guztietan eta prozedura zibilar buruzko legedian ezarritako zenbatekoetan eta araubidean.

2. Enbargaezinak izanen dira gizarte zerbitzuen zorroan sartutako prestazio bermatuak ere.

3. Ikaskuntza ez-unibertsitarioak egiteko beka eta laguntzak eta graduak nahiz graduondoko ikaskuntza unibertsitarioetarako beka ere enbargaezinak izanen dira.

Azken xedapena.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta enbargo-prozedurei aplikatzekoa izanen da, baldin eta, legea indarrean sartzan denean, oraindik ez bada erabaki edo eman ebazpenik oinarrizko errenta edo gizarteratze errenta enbargatzeko, edo gizarte zerbitzuen zorroan sartutako gizarte prestazio bermatu bat enbargatzeko bere onuradunei, edo mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile ez profesionalentzako laguntzak eta ikasteko laguntzak edo beka enbargatzeko.

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkeztu dute neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Beharrezkoa da Nafarroak baliabide ekonomikoak izan ditzan bere herritarren eskakizunak asetzeko eta merkatuen interesei soilik erantzuten dieten aurrekontu-egonkortasuneko helburuen aurrean ez makurtzeko. Horretarako, beharrezkoa da erreforma fiskalaren ardatza izan daitezen ekitekerik ez duten gure sistemako puntuak.

80ko hamarkadako urteetatik hona laneko errenten gaineko zerga-politikak izan duen joera nabarmen erregresiboa izan da, zeharkako zergak arian-arian igo baitira eta zuzenekoak, aldiz, jaitsi. Horren froga da zerga-tarteen kopurua eta gehieneko kotizazio-muga etengabe jaitsi izana: PFEZe-ko zerga-tarteetako gehieneko zerga-tasa 1979an % 66koa izatetik 2008an % 42koa izatera igaro da. Agerikoa da Nafarroako zerga-sistemaren tasun erregresiboa.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketa jaitsi izana da Nafarroako zerga-sistemaren beste arazoetako bat. Haren zerga-oinarriaren jaitzierak, zeina krisi ekonomikoari egozten baitzaio, ez du erabat azaltzen bildutako diru-kopurua erori izana.

Erantzukizuna zerga-tasak jaistearena da, bai eta hobari, kenkari eta arinketen mordoiloarena ere; izan ere, enpresek, horri esker, zerga-tasa nominaletatik atera dezakete beren etekina, arauak ezartzen duen zerga-tasatik oso urrun dagoen zerga-tasa erreal bat sortuz.

Beharrezkoa da, orobat, Ondarearen gaineko Zerga erreformatzea, duen birbanatzeko eginkizuna bete ahal izan dezan, salbuetsitako gutxiene-koa murriztuz, ohiko etxebizitzaren balioa –indarreko zenbatekoarengatik– kanpo gelditu ondoren. Zerga horren bidezko diru-bilketaren igoerak diru-sarrerak igotzeko modua ekarri behar dio Nafarroako Ogasunari, halako moduan non politika publikoak finantzatu ahal izanen baitira, Foru Administrazioak zerbitzuak behar bezala ematea ziurtatuko dutenak.

Foru lege proposamen honen xedea da zenbait aldaketa sartzea beste horrenbeste legetan; zehazki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginean, zeina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen; Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legean, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean, errentari buruzko zergaren gehikortasuna hobetze aldera eta sozietateen nahiz ondarearen gaineko zergatako diru-bilketa hobetze aldera.

1. artikulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren aldaketak jasotzen ditu, eta indarrean dagoena baino gehikortasun handiagoko eskala bat ezartzen du, bai eta kapitaleko errentak zerga-oinarriaren eta likidazio-oinarriaren sartzeko sistemaren gaineko aldaketa bat ere. Kendu egiten da laneko nahiz kapitaleko errentei dagokienez abenduaren 27ko 18/2006 Foru Legean jaso zen tributazio-sistema duala, ez

dadin jaitziera handia gerta kapitaleko errentek ordaindu beharreko zerga-tasan.

2. artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko aldaketak jasotzen ditu; alde batetik, % 35eko zerga-tasa orokor nominala berreskuratzen da eta eutsi egiten zaio enpresa txikienezko zerga-tasa murriztuagoari; beste alde batetik, bi neurri jasotzen dira zerga horren diru-bilketa ahalmenarekin lotuta: 15 urtetik 5 urtera murrizten da subjektu pasiboek egun duten epea, aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboaren murrizketak aplikatu ahal izatekoa, eta muga orokor bat ezartzen da pizgarriak direla-eta kuota likidoaren gainean aplikatzen ahal diren kenkariaren ehunekoari dagokionez. Horrek guztiak helburu du arauak ezartzen duen zerga-tasa nominalera hurbilaztea zerga-tasa errealera.

3. artikulua Ondarearen gaineko Zergaren aldaketak jasotzen ditu: hartara, 200.000 eurora murrizten da zergatik salbuetsita dagoen ohiko etxebizitzaren balioa, eta likidazio-oinarria izanen dela salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 300.000 euro murriztearen emaitza.

Xedapen indargabetzaileak Kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko sozietateei –SICAV siglez ezagutzen direnei– buruzkoak dira. SICAV direlako horiek honako bitartez daude araupetuta: Inbertsio Kolektiboko Instituzioei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea eta lege horren erregelamendua onesten zuen azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretua. Lehendabiziko neurri indargabetzailea da aipatu SICAV horietako kapitala eratzeko eta handitzeko operazioetarako Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan jasotzen den salbuespenari buruzkoa, eta bigarrena –garrantzitsuagoa diru-bilketaren eta justizia sozialaren ikuspuntutik–, sozietate horiek ordaintzen zuten % 1eko zerga-tasa murriztu-murriztua indargabetzea.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 59.1 artikulua eta berrogeigarren xedapen gehigarriko a) letra aldatzen dira, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

“59.1. artikulua. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO- OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22,5
8.499	1.548,90	9.027	25,5
17.526	3.850,78	13.279	29,5
30.805	7.768,09	14.675	38
45.480	13.344.59	7.927	44
53.407	16.832.47	34.593	47
88.000	33.091.18	37.000	50
125.000	51.591.18	50.000	52
175.000	77.591.18	125.000	54
300.000	145.091.18	Gainerakoa	56"

Bi. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 53. artikulua aldatzen da, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

"53. artikulua. Zati orokorra.

Zerga-oinarriaren zati orokorra osatuko dute subjektu pasiboaren errenta guztiek, hurrengo artikuluan aipatzen diren ondare-gehikuntzak eta -murrizketak kenduta, eta ondokoez osatuko da:

a) Foru lege honetako 51., 52.4. eta 52. bis artikuluetan aipatzen diren errenta egozpenak eta errendimenduak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko IV. kapitulua zergaldi bakoitzean elkarren artean konpentsatetik eta osatetik ateratzen den saldoa.

b) Ondare-gehikuntzak eta- murrizketak zergaldi bakoitzean beren artean soilik konpentsatetik eta osatetik ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan aurreikusitakoak kenduta. Konpentsazioaren eta osatzearen emaitza negatiboa baldin bada, letra honetan aipatutako hurrengo lau urteetako ondare-gehikuntzen saldo positiboarekin konpentsatuko da bere zenbatekoa.

Hurrengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan egin beharko da konpentsazioa, eta ezin izanen da egin arestiko

lerroaldean aipatzen den epetik kanpo, hurrengo urteetako ondare-murrizketei erantsiz".

Hiru. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 54. artikulua aldatzen da, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

"54. artikulua.- Zati berezia.

Zerga-oinarriaren zati berezia osatuko du honako ondare-gehikuntzak eta- murrizketak zergaldi bakoitzean beren artean soilik konpentsatetik eta osatetik ateratzen den saldo positiboa; ondare-aldaketa bat gertatzen den eguna baino lehenago urtebete baino gehiago lehenago eskuratutako eskubideen edo ondasunen ondare-aldaketen ondorioz edo aurrerapen berarekin erositako balioei dagozkien harpidetza-eskubideen ondorioz agerian jarritako ondare-gehikuntzak eta -murrizketak.

Kompentsatu eta osatzearen emaitzak saldo negatiboa eragiten baldin badu, horren zenbatekoa soilik konpentsatzen ahalko da artikulua honetan aipatzen diren ondare-gehikuntza hurrengo lau urteetan agerian jartzen direnen bidez.

Hurrengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan egin beharko da konpentsazioa, eta ezin izanen da egin arestiko lerroaldean aipatzen den epetik kanpo, hurrengo urteetako ondare-murrizketei erantsiz".

Lau. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 57. artikulua aldatzen da, 2012an eta hurrengo urteetan amaitzen diren zergaldietarako ondorioekin. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

"57. artikulua. Likidazio-oinarri berezia.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia izanen da zerga-oinarriaren zati bereziari, kasua bada, 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 23. erregelak aipatzen duen murrizketa aplikatetik heldu dena.

Bost. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 60. artikulua aldatzen da. Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testu berria:

"60. artikulua. Likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Honela kargatuko da likidazio-oinarri berezia:

Batez besteko ondoko tasetan handiena hartuko da:

a) Oinarri horren 100eko 50eko karga-tasa aplikatetik heldu den batez besteko tasa.

b) Foru lege honetako 59. artikuluko 2. idatz-zatian definitutako karga-tasaren batez besteko tasa.

Aipatu batez besteko tasa, zeina ezin izanen baita izan 30etik gorakoa, biderkatu eginen da, tasa hori zati 30 egitetik heldu den zatidurarekin.

Horrela zehaztutako zenbatekoak osatuko du likidazio-oinarri bereziari aplikatu beharreko karga-tasa.

Arestian aipatutako karga-tasa 100eko 20tik gorakoa ateratzen den kasuetan, ehuneko hori bera aplikatuko da baldin eta ondare-gehikuntzak eragin dituzten ondare-elementuen kostu bidezko besterentzetik heldu den zenbateko osoa berrinbertitzen bada ondoko baldintzak betez:

1. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 10., 11., 13., 15. eta 16. artikuluetan aipatzen diren ondare-elementuetan egin beharko da berrinbertsioa, hiru hilabeteko epean, besterentzea egiten den egunetik –edo, epeka edo prezio geroratuko operazioen kasuan, kobratzen den egunetik– zenbatzen hasita.

2. Berrinbertsioa gauzatzen den ondare-elementuek subjektu pasiboaren ondarean egoten jarraitu beharko dute gutxienez ere bi urtez. Baldintza hori ez da betegabetzat hartuko baldin eta

elementu horiek kostu bidez transmititzen badira epe hori bukatu aurretik eta lortutako zenbatekoa berriz ere inbertitzen bada arestiko idatz-zatian ezarritakoa betez, harik eta aipaturiko bi urteko epea osatu arte.

3. Berrinbertsioa agiri bidez frogatu beharko da, zergari buruzko kasuko aitorpena aurkezten denean.

Berrinbertsio partzialen kasuan, likidazio-oinarriak 100eko 20ko karga-tasa izanen du, eta inbertitutakoak besterentze osoarekiko egiten duen ehuneko berbera aplikatetik heldu dena izanen da.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak bete ezean, subjektu pasiboak murrizketaren xede izandako kuota osoa ordaindu beharko du, bai eta berandutze-interesak ere, ez-betetzea gertatu zen zergaldiko kasuko zergaren aitorpena egiten duen unean."

Sei. Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legeko 2. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

"Hiru, 5. artikulua, 7:

Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera, 200.000 euro arte gehienez ere."

Zazpi. Pentsio planetara ekarpenak egin edo aurrezteagatiko kuota likidoaren kenkariaren ehuneko aipatzen duen artikuluko-zatia aldatzen da, ehuneko % 5ean utziz".

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketak.

Bat. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 40. artikulua aldatzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Hona testu berria:

"40. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboak murriztea.

1. Likidazio-oinarri positiboak murriztu ahalko da, justu aurreko hiru urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboaren bidez. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek".

Bi. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.1.a) artikulua aldatzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Hona testu berria:

"50. artikulua. Karga-tasak:

1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

a) Ehuneko 35."

Hiru. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 72.3. artikulua aldatzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Hona testu berria:

"72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkarietara buruzko arau komunak.

(...) 3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkarietara ezin izanen dute denon artean gainditu kuota likidoaren 100eko 25, zeina heldu baita hobarietan eta kenkarietan kuota osoa minoratzen, zergapetze bikoitza –barnekoa eta nazioartekoa– ekiditeko".

3. artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.

Bat. Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 5.70. artikulua aldatzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Hona testu berria:

"5. artikulua.

(...) 7. "Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu hori), 200.000 euro arte gehienez ere."

Bi. Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 28. artikulua aldatzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Hona testu berria:

"28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxiengoagatik zerga-oinarria 300.000 euro murriztuko da.

Tributuak bai betebeharraren pertsonalarengatik bai betebeharraren errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboari aplikatzeko izanen da aurreko idatz-zatian ezarritakoa."

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bateginaren 35.I.B) artikulua indargabetzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin. Testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra indargabetzen da, 2012ko urtarrilaren 1eko ondorioekin.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proposamena, apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea aldatzen duen foru lege proposamena

Titulu berria.

Bizikidetasun sozialerako eta zio politikoko indarkeriaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egiteko Foru Legea

Zioen azalpen berria.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea gaurko egoeraz oso bestelako batean emandako arau bat da.

Aldaketa handiena, zeina lege hori onetsi ostean gertatu baita, borroka armatua behin betikoz desagertu izana da. Egitate horretatik ondorio sakon eta agerikoak heldu dira jada gure lurralde honetako bizitza sozialera (bizkartzainik ez egotea, "zerga iraultzailea" deiturikoa bertan behera gelditzea, eta abar), baina beste ondorio garrantzitsu batzuk gainditu behar dira oraindik; esate baterako, biktimei guztiei behar bezalako tratamendua ematea, espetxe politiken normalizazio demokratikoa edo salbuespen-legeak gainditzea, eskubide demokratiko eta konstituzionalak murriztu eta salbuesten baitituzte.

Legearen testu indardunari buruzko balorazioak gorabehera, onartu beharra dago Nafarroak arau-erreferentzia bat onetsi behar duela, zeinean ez baita inor bazter utziko edo baztertuta sentituko, denon duintasunerako eta berdintasunerako, etorkizuneko bizikidetasunari begira. Zio politikoko indarkeriaren biktimei dira José Javier Múgica eta Tomás Caballero, Gladys del Estal eta Angel Berroeta diren bezala; zio politikoko indarkeriaren biktimei dira Julián Embid jauna, Francisco Casanova jauna, Bonifacio Martín jauna eta beste, hain zuzen ere Germán Rodríguez, José Luis Cano, Mikel Zabaltza eta beste diren bezala.

Iribarren kasuari edo "Parot doktrina" izenekoaren jurisprudentziari buruz Estrasburgoko Auzitegiak hartutako erabakiaren ostean, zenbait indar politiko garrantzitsu legeztatu ostean –Alderdien Legea de facto aldatzea dakar horrek–, eta, batez ere, gizarteak politikoei etengabe eta irmoki emandako aginduaren ostean, Nafarroak biktimei buruzko lege bat onetsi behar du, ez dituen errepikatu diktaduraren ondorengo eskema eta irudia, zeinaren arabera alde batekoei "erorien" tratamendua ematen baitzitzaie, eta, beste aldeko biktimeak, aldiz, zokoratu eta ahaztu egiten baitziren eta are degradatu ere.

Zoritxarrez, Nafarroako Parlamentuan 2012ko ekainaren amaieran eta uztailearen hasieran egindako erakusketa ez zen soilik aurrekari eta zantzu txar bat izan, orobat erakutsi baitzuen, modu ukaezinean erakutsi ere, 9/2010 Foru Lege indarduna ezinbestean irakurketa zeharo partziala eragiten duen testu bat dela eta, horrenbestez, erabat zaharkituta gelditu dela.

Nafarroa –eta, zehazkiago, bere erakundeak– behartuta dago bakea eta normalizazio politikoa eta soziala lortzen laguntzeko, eta lege honen edukiak ekarpen bat izan behar du bide horretan. Biktimei egia, aintzatespena, memoria eta ordaina zor zaie, eta gizarteari eta haren ordezkariari, berriz, errespetua eta elkarriketa. Etorkizuneko bizikidetasun politikoa eta soziala egian, memoriari eta berdintasunean oinarritu beharko da nahitaez Nafarroan.

Horretarako, ezinbestekoa da gizarte berdinaren gizarte izatea; alegia, garailerik eta garaiturik gabekoa, zeinean aniztasunaren egiaztapena, balorazio positiboa eta errespetua oinarrituko baita denen autokritikan eta sufrimendu orekiko errespetuan, sufrimendua nondik ere datorren.

Zio politikoko indarkeriaren biktimen foru legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Biktimei aitortpena eta erreparazioa egiteko Legearekiko izaera korrelatiboa eta 13/1996 Legearekiko –zeina 32/1999 Legearen eta 2/2003 Legearen bidez aldatu baitzen– nahiz lege horren aldaketekiko eta garapenekiko izaera osagarria du.

Titulua eta zioen azalpena aldatzeko zioak.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko 9/2010 Lege indardunaren testuaren irakurketa erabat partidista eta asmo errotik baztertzaila agerian jarri dira bi urteotan izan duen aplikazioan. ETaren jardueraren biktimez landa ez zaio beste biktima bakar bati ere aitortpenik txikiena egin, ez Nafarroako erakundeetako organo exekutiboan aldetik laguntzarik txikiena ere eman.

Zalantzaren bat gelditzen baldin bazen, Nafarroako Parlamentuko atalondoan 2012ko ekainaren 26an inauguratutako erakusketak berak argi eta garbi jarri zuen agerian 9/2010 Legearen interpretazioa, zeinaren artikuluetan ez baita aintzat hartzen indarkerien biktima bakar bat ere, ETA erakundearen biktimez aparte.

Egitateek frogatuta gelditu da, beraz, 9/2010 Foru Legearen aitzin-solasean beste indarkeria batzuetako biktimak itxura batean aipatzen dituen esaldi lausoak ez daukala inolako birtualtasunik. Arau bat –kasu honetan, foru lege bat–, baldin eta ez badu biktima bezala artatzeko, aitortzeko eta aintzat hartzeko betebeharrak ezartzen, ez Gladys del Estal, ez Germán Rodríguez, ez Mikel Zabaltza, ez Ángel Berroeta ez beste hainbat eta hainbat, ez da bakea eta normalizazioa ekartzeko birtualtasuna duen arau bat, ez da zuzena eta bidezkoa, eta ez dator garai hauekin bat.

Artikulu berriak.

1. artikulua. Legearen xedea.

Foru lege honen xedea da zio politikoko indarkeriaren biktimen erreparazioa, memoria, aitortpena eta egia, eta, hartara, bizikidetasun soziala eta bakea lortzen laguntzea.

Horren ondorioetarako, zio politikoko indarkeriatzat hartuko da banda antolatuek –indarra erabilita edo hertsapenak baliatuta– egindako ekintza ez-baketsu oro, bai eta horiei erantzuteko nahiz erantzun horren hipotesi edo suposizioari erantzuteko ekintzak, ageriko asmo horrekin indar armatuek, ihardespen-erakundeek edo pertsonak eginak.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Bizikidetasun sozialerako eta zio politikoko indarkeriaren biktimei aitortpena eta erreparazioa

egiteko Foru Legea aplikatuko zaie indarkeriaren ondorioak zuzenean pairatu dituzten pertsonen nahiz beren senitartekoei –odol edo ezkontza bidezko hirugarren gradura bitartekoei–, bai eta irabazi asmorik gabeko elkarteei ere, baldin eta xede badute zio politikoko indarkeriaren biktimei laguntza ematea eta gizartean bizikidetasun bake-tsua finkatzea eta garatzea.

3. artikulua.

(I-datzen zati berri bat, hirugarrena, gehitzea)

3. Nafarroako Gobernuak orobat eman ahalko dizkie foru lege honetan aurreikusitako laguntzak Estatuaren arauen onuradun ez diren indarkeriaren biktimei, baldin eta zio politikoko indarkeriaren biktima izateko baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Aitortpena, erreparazioa eta laguntza.

Eragindako kalteen erreparazio-izaera dute foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz emandako laguntzek eta onurek, eta onuradunen biktima-izakeraren aitortpena dute oinarri eta jatorri.

Hona erreparazio hori zer laguntza-baliabide-tan datzan:

a.- Kalte pertsonalen, fisikoen eta psikikoen kalte-ordainak.

b.- Kalte material edo ekonomikoen kalte-ordainak.

c.- Osasun, hezkuntza, lan, prestakuntza eta etxebizitza arloetan laguntza ematea.

d.- Erregelamendu bidez ezartzen diren bestelako diru-laguntza eta laguntzak.

5. artikulua. Biktima-izaeraren aitortpena eta erreparazioa jasotzeko baldintzak.

1. Nafarroako Gobernuari dagokio indarkeriaren biktima-izaeraren aitortpena jasotzen duen deklarazioa egitea; deklarazioa egiteko, Gobernuak kontuan hartuko ditu epai judizialak eta administrazio eskudun guztien txostenak –besteak beste, polizia kidego ezberdinenak–.

2. Nafarroako Gobernuako organo eskudunak erabakiko du foru lege honetan jasotzen diren onurak eta laguntzak ematea, oinarri harturik biktima-izaeraren alde aurreko deklarazioa eta biktimak berak edo bere lege-ordezkariek eskatuta abiarazitako administrazio-espeditentia.

6. artikulua. Foru lege honetan aurreikusitako aitortpena eta erreparazioa eskatzea eta izapidetzea.

7. artikulua kentzen da, bere edukia 5. artikuluan aurreikusita baitago.

8. artikulua. Kalte pertsonalen erreparazioa; bai fisikoena, bai psikikoena.

Aseguruei eta kalteak eta kalte-galerak kalkulatzeari buruzko legedian eta jurisprudentzian ezarritako kalteordain-baremo eta -irizpideetan oinarrituta emanen da Nafarroako Gobernuaren ebazpena, biktima-izaera aitortu zaion pertsonak edo pertsonak pairatutako kalte fisikoak eta psikikoak –indarkeria- edo hertsapen-ekintzaren ondoriozkoak –erreparatzekoa.

Pertsona horiek behar dituzten laguntza pertsonalak, osasun-laguntzak nahiz laguntza psikologikoak edo sozialak kasuko zerbitzu publikoen ardurapean utziko dira, zuhurtzia profesionalak agindutako baliabide-mugaz bestelakorik gabe.

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu ahalko ditu, edo diruz lagundu, biktimen defentsa eta ordezkartzak prozedura judizialean eragindako gastuak, baldin eta halakorik badago.

9. artikulua. Kalte materialen eta ekonomikoen erreparazioa.

Aseguruei eta kalteak eta kalte-galerak kalkulatzeari buruzko legedian eta jurisprudentzian oinarrituta emanen da Nafarroako Gobernuaren ebazpena, biktima-izaera aitortu zaion pertsonak edo pertsonak pairatutako kalte materialak edo ekonomikoak –indarkeria- edo hertsapen-ekintzaren ondoriozkoak –erreparatzekoa.

Erreparazio honen onuradun izan ahalko da, orobat, bere ondasunak kaltetuta ikusi dituen beste edozein hirugarren pertsona, nahiz eta biktima-izaerarik ez eduki, bai albo-kalteengatik, bai indarkeria- edo hertsapen-ekintzaren zeharkako ondorioengatik.

10., 11., 12., 13., 14. eta 15. artikulua kentzea, kasuistika korapilatsuegia jasotzeagatik, funtzionala gertatu ez dena eta gertatu ezin dena. Aipatutako lege- eta jurisprudentzia-irizpideak zuzenagoak eta birtualtasun handiagokoak dira.

Zehazki, aipatutako azken hiru artikuluei dago kienez –13.a, 14.a eta 15.a, mendetasun egoeran dauden biktimei buruzkoak–, legedian eta jurisprudentzian ezarritako irizpide orokorrak aplikatu behar dira.

16. artikulua kentzea. Defentsarako diru-laguntzei buruzkoa da, eta diru-laguntza horiek aurreikusita daude jada arestiko artikuluetan, bai eta bestelako jarduketak batzuei buruzkoa ere, eta horiek Diru-laguntzei buruzko Foru Legearekin bat izapidetu beharko dira, gainontzeko diru-laguntzen bide beretik.

17. artikulua kentzea.- Hezkuntza arloko programa guztiak, giza-eskubideen gaineko edukia dutenak barne, hezkuntzari buruzko legedi orokorrean sartu behar dira.

Ikastetxe bakoitzak prestakuntza hori egokitu beharko du bere bizikidetasun planean, gatazken tratamendutik abiatuz eta elkarriketa sustatuz bizikidetasun baketsua eraikitzeko tresna gisa.

Nafarroako Gobernuak artikulua hori bete duen ala ez Legebiltzar honetan hiru urtez eztabaidatu izanak agerian uzten du bere disfuntzionaltasuna eta desegokitasuna.

18., 19., 20., 21., 22., 23., 24. eta 27. artikulua kentzea.

Artikulu horietan zenbait espezifikotasun ezarritzen dira osasun arloko laguntzei eta laguntza psikologikoei buruz, bai eta lan eta etxebizitza arloko ei buruz ere. Aurreikuspen horiek gehiegizko kasuistika jasotzen dute, eta, horretaz gain, gainontzeko gizartearekiko asmo edo joera desberdintzailea dute, eta hori ez da positiboa.

Biktimei laguntza eta erreparazioa emateko neurriek ezin dute tratu abantailatsuen ez iurudia ez irudipena eragin gizartean. Funtzio publikoan sartu eta gora egiteari dagokionez, berdintasun-printzipioa errespetatu behar da, eta bateragarria izan behar du indarkeria-ekintzen ondorioz sortutako ezgaitasun erabatekoei edo partzialei behar bezalako arreta ematearekin.

25. artikulua. Egia eta memoria.

Nafarroako Foru Komunitateak, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako administrazio publikoen bitartez, sustatu, bultzatu eta lagundu egiten ditu egia eta memoriari buruzko ekimenak, indarkeria oro, nondik ere datorren gaitzesten dutenak eta berdinen arteko bizikidetasun baketsua bultzatzen dutenak.

Lurralde honetan gertatutako indarkeria-ekintzen memoria gogoratu eta egia irudikatzen duten monumentu eta sinbolo publikoak herritar guztien ondasun publikotzat hartuko dira, eta inor ere ezin izanen da bazter utzi horiek ezagutu, begietsi eta haietan sarbidea izatetik.

Indarkeria-ekintzei datzekien memoriak, herritar guztien ondasun ez-material integratzailea den aldetik, ez du herritarrik bazter utziko arrazozi ideologikoak, alderdikoiak edo egiletza ziur edo ustezkoa direla eta.

26. artikulua. Aitorpena eta erreparazioa eta horien izapidetzea.

Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza Departamentuaren esparruan izapidetuko ditu aitorten deklarazioak eta erreparazio-emateak.

Nafarroako Gobernuak indarkeriaren biktimizaera ere kontuan edukiko du sariak eta ohoreak ematerakoan, emate horren oinarrian dauden gainontzeko merezimenduekin batera.

Halaber, Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren jarduketak sustatuko ditu ziurtatze aldera egiaren eta memoriaren monumentuen eta sinboloen mantentzea eta kontserbazioa, bai eta herritar guztiek monumentu eta sinbolo horietarako sarbidea izatea, ezagutzea eta begiestea ere.

Halaber, Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren gastu-kontusailak ezarriko ditu aurrekontuen urteko proiektuan, lege honetatik heldu diren bete-beharrei eta eskubideei aurre egiteko.

28. artikulua kentzea. Kentzea eskatzen den artikulua "izaera fiskaleko neurriak" aurreikusten zituen. Fiskalitateak berdina izan behar du herritar guztientzat, eta arau honen birtualtasunik ezaren froga da indarrean egon den bitartean ez dela halakorik eman.

29. artikulua kentzea. 29. artikulua aurreikusten du Biktimei laguntzeko Batzorde bat eratzea eta funtzionatzea. Batzorde hori 2011ko apirilaren 11n sortu zen, "Foru Gobernuko 10 karguk" osatua, legeak ezarritako hiru hilabeteko epea gainditu ondoren, baina inolako jarduketarik egin gabe itxura batean.

Lehen xedapen gehigarria kentzea. Ez da beharrezkoa, bere edukia legean jada jasotzen baita.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuari foru lege honetan aurreikusitakoa garatzeko baimena eta agindua ematen zaio.

Hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren xedapen gehigarriak kentzea. Edukirik gabe gelditu dira, proposatutako gainontzeko aldaketekin bat.

Xedapen indargabetzailea. Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena eta bigarrena kentzea. Lehena ez da beharrezkoa, Gobernuarentzako agindua beste atal batean jada jasotzen baita. Azken xedapenetan bigarrenari dagokionez, bere edukia zaharkituta gelditzen da foru lege proposamen honen arabera.

Foru Lege proposamena, Nafarroako sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea aldatzen duena.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko Nafarroako sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena

erretiratu izanari dagokionez. Proposamena 2012ko ekainaren 22ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz eta finantzaketa egonkorra ezar dezan “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lankidetzaz eta finantzaketa egonkorra ezar dezan “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin lankidetzaz eta finantzaketa egonkorra ezartzeari buruzko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak lan bilera egin zuen, irailaren 12an, “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioaren ordezkariekin. Parlamentu-taldeek aukera izan zuten fundazio hori ezgaitasun intelektualeko pertsona-talde batekin egiten ari den lana ezagutzeko.

“Fundación Tutelar de Navarra” fundazioak hogeita lau urte daramatza lanean bere egunero-

ko bitzita egiteko familiaren aldetik laguntza gutxieneko bat ez duten ezgaitu intelektualekin. Gizarte-izaera markatuko entitate bat da, irabazi asmorik gabekoa, eta Nafarroako Gobernuak gizarte-intereseko erakunde deklaratu duena. Fundazioa “Asociación Española de Fundaciones Tutelares” izeneko elkarteko kidea da.

Kolektibo horri tutoretza-laguntza emateko berezko eginkizunaz gain –euskarri judiziala du horretarako–, entitateak, aldi berean, ahulezia-egoerak edo gizarte-bazterkeriakoak prebenitzeko lan egiten du. Fundazioan berrogeita hamar boluntarioko talde batek egiten duen lana beste elkartasun- eta konpromiso-erakusgarri bat da, bere eguneroko jardueran azpimarratu beharrekoa.

“Fundación Tutelar de Navarra” fundazioak argi eta garbi azaldu zuen lan saioan une honetan dituzten premiazko beharrezko erantzuteko beharrezko dela giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak areagotzea. Entitateak, eman zituzten datuen arabera, bederatzi urte daramatza galerak izaten.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Lankidetzaz-hitzarmen bat sina dezan “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekin.

2. “Fundación Tutelar de Navarra” fundazioarekiko lan-esparru egonkor bat susta dezan, fundazioari egonkortasuna eta jarraitutasuna ematen laguntzeko.

3. Tutoretza zerbitzu bermatu gisa baloratzea, kasua bada Gizarte Zerbitzuen Zorroan sar dadin.

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiaz gain, Espainiako ereserkia ere jo dadin.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiaz gain, Espainiako ereserkia ere jo dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Horren bidez eskatzen da ekitaldi solemneetan, Nafarroako ereserkiaz gain, Espainiako ereserkia ere jo dadin.

Nafarroaren armarrria, bandera eta ereserkia dira Foru Komunitatearen sinbolo ofizialak. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak armarrria eta bandera definitzen ditu, eta Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeak ezartzen du, Nafarroako sinbolo guztien erabilera arautzeaz gain, "Gorteen ereserkia" deritzona dela ereserki ofiziala.

Foruaren Hobekuntzako 1. artikulua ezartzen du Nafarroa foru erkidego bat dela, Espainiako Nazioaren barnean sartua; hortaz, sinbolo nazionalak partekatzen ditu; bai bandera, bai ereserkia. Foru Komunitateko ekitaldi ofizialetan Espainiako bandera dagoen modu berean, Parlamentu-talde Popularrak uste du Nafarroan egiten diren ekitaldi solemneetan Nafarroako ereserkia jotzen bada Espainiako ereserkia ere jo behar dela, .

Horregatik guztiagatik, Talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren ekitaldi solemneetan Espainiako ereserkia ere jo dadin, Nafarroako ereserkiaz gain.

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Fundación Camino de la Lengua Castellana” fundazioan sar dadin.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “Fundación Camino de la Lengua Castellana” fundazioan sar dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Fundación Camino de la Lengua Castellana” fundazioan sar dadin.

Gaztelaniaren egoerari buruzko “Cervantes” Institutuaren azken datuen arabera, 495 milioi pertsonak hitz egiten dute egun hizkuntza hori. Hiztun kopuruari dagokionez, munduko bigarren hizkuntza da gaztelania, eta orobat da nazioarteko komunikazioko bigarren hizkuntza. Une honetan 18 milioi ikaslek ikasten dute gaztelania atzerriko hizkuntza gisa, eta gaztelaniaren irudia kalitatezko nazioarteko kultura baten hedapenari lotuta ageri da.

“Cervantes” Institutuaren aurreikuspenen arabera, munduko biztanleen % 7,5ek hitz egiten du gaztelaniaz 2030ean (535 milioi pertsonak, guztira), halako moduan non azpitik izanen baititu errusiera (% 2,2), frantsesa (% 1,4) eta alemana (% 1,2). Ordurako, txinerak bakarrik gaitzuten du gaztelania ama-hizkuntzadun hiztunen kopuruari dagokionez.

Alegia, gaztelania tresna eta ondare global bat da, zeinari esker ekonomia nagusietako milioika pertsonarekin talentua eta ezagutza partekatu eta mundu osoan kalitate handiagoko sare gehiago eraiki ahal baititugu.

Etorkizun oparoa izateaz gain, gaztelaniak iragan aberatsa du, eta komunikazio- eta ezagutza-bide izateaz gain, kultura eta balioak transmititzeko modu ahaltsua da. Erakunde publikoak ondare horren babesaz arduratu dira.

Gaztelania, Foruaren Hobekuntzari eta Euskarari buruzko legeekin bat, Nafarroako eremu guztietan ofiziala den hizkuntza bakarra da. Foru Komunitateak, halaber, lotura handia du gaztelaniarekin, literaturari eta historiari dagokienez. Nafar bat izan zen, hain zuzen ere, Gaztelaniaren Erret Akademiaren fundatzailea eta lehen zuzendaria: Juan Manuel Fernández Pacheco (Martzilla, 1650).

Gaztelaniaren Bidea, berriz, erdigunea gaztelaniaren jatorrian eta hedapenean jartzen duen ibilbide bat da. Ibilbide horrek aukera ematen du hizkuntzaren eta literaturaren bidez kultura, historia, arkitektura, tradizioak eta gastronomia ezagutzeko.

“Fundación Camino de la Lengua Castellana” fundazioaren helburu nagusia ibilbide hori sustatzea da. Fundazioa 2000ko otsailaren 22an sortu zen, eta Logroño du bere egoitza. Fundazioak turismo- eta kultura-ibilbide hori sustatzen du, hainbat ekintzaren kudeaketaren bitartez.

Fundazioa erakunde pribatu bat da, eta patronatua osatzen duten erakunde publikoen laguntza du. Erakunde horien artean daude Kultura Ministerioa eta Madril, Gaztela eta León eta Errioxako autonomia erkidegoak.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Fundación Camino de la Lengua Castellana” fundazioan sartzeko eska dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

F saila:
GALDERAK

Galdera, Sarrigurengo Emakumeari Laguntzeko Zentroa irekitzeko aurreikusitako egunari buruzkoa.*ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo Emakumeari Laguntzeko Zentroa irekitzeko aurreikusitako egunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sarrigurengo osasun etxera egindako bisita parlamentarioan, Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak adierazi zigun 2012ko lehen hiruhilekoan irekiko zela Emakumearen Zentroa.

Zentroa ireki ez denez gero, ondoko galdera egiten dugu:

- Zein egunetan aurreikusten da irekiko dela Emakumeari Laguntzeko Sarrigurengo Zentroa?

Iruñean, 2012ko irailaren 7an.

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko zein neurritan eragiten dion hezkuntza sistemaren kalitateari bi ordu baino gutxiagoko lanpostuak izateak.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zein neurritan eragiten dion hezkuntza sistemaren kalitateari bi ordu baino gutxiagoko lanpostuak izateak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zein neurritan eragiten dio hezkuntza-sistemaren kalitateari bi ordu baino gutxiagoko lanpostuak egoteak?

Iruñean, 2012ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak ez dien uzten egoera irregularrean dauden 18 urtez gorako ikasle etorkinei zentro publiko batean matrikulatzen.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak ez dien uzten egoera irregularrean dauden 18 urtez gorako ikasle etorkinei zentro publiko batean matrikulatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zergatik uzten du ikastetxe publiko batean matrikula uka dakien administrazio-egoera irregularrean dauden 18 urtetik gorako ikasle etorkinei?

Iruñean, 2012ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen berdintasun teknikariak kontratatze aldera toki entitateei ematen dien diru-laguntza murrizteko.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen berdintasun teknikariak kontratatze aldera toki entitateei ematen dien diru-laguntza murrizteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilari Jesús Pejenaute Grávalos jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak diru-laguntza ematen die toki entitateei, berdintasuneko teknikariak kontratatzeke.

Foru parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik toki entitateentzako diru-laguntza horren kontusaila murrizteko?

Iruñean, 2012ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Mendialdea 1 eta 2 ikastetxeetako ikasleen garraio-zerbitzua kentzeari buruzkoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, Mendialdea 1 eta 2 ikastetxeetako ikasleen garraio-zerbitzua kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikasturte honen hasieran Mendialdea 1 eta 2 ikastetxeetako ikasleei eragindako arrisku handia egiaztatuta –izan ere, eskola garraio publikoa kendu da–, eta Berriozarko Udaleko ordezkari politikoek eta eskola erkidego osoak aho batez egindako protesta ikusita,

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik bide segurtasunean sortutako arazoa konpontzeko? Ba al du asmorik eskola garraio motaren bat berrezartzeko Berriozarko herrigunearen eta ikastetxearen artean?

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Xabier Lasa Gorraiz

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabier Lasa Gorraizek, Legebil-

Galdera, toki entitateei “Tokiko Agenda 21” programako proiektuetarako diru-laguntzak ordaintzeari buruzkoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, toki entitateei “Tokiko Agenda 21” programako proiektuetarako diru-laguntzak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabier Lasa Gorraizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapen, Ingurumen eta Toki

Administrazioko kontseilari José Javier Esparza jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan uztailean, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zien ukitutako udalei bertan behera gelditu direla “Tokiko Agenda 21” izenekoaren deialdiaren kariatara 2012rako esleitutako diru-laguntzak. 16 udal dira, 161.000 euro egiten zuten 17 jarduketa onetsi zitzaizkienak.

Deialdi hori bertan behera uzteak eten egiten du ingurumen arloko urte askotako jarduera, Europako nahiz munduko parametroen arabera “Agenda 21” dela-eta udal biltzarretan herritarren eskariz sortutakoa.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik “Tokiko Agenda 21” izeneko programako proiektuetarako toki entitateei emandako diru-laguntzen ordainketa aurten –2012an zehar– desblokeatzeko? Hala baldin bada, noizko uste duzue jaso ahalko direla diru-laguntza horiek?

Iruñean, 2012ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Xabier Lasa Gorraiz

Galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko kideen berritze partzialari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko kideen berritze partzialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran erantzuteko.

Nafarroako Kultura Kontseilua kultura-politika-ko tresna bat da, gure erkidegoan 1983tik dagoe-na. Hamarkada hauetan zehar garrantzizko eginkizuna bete izan du, Kultura Departamentuaren organo aholku-emaile gisa.

Eginkizun hori berariaz indartu zen Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legean, zeinaren 10. artikulua ondokoa xedatzen baitu:

“10. artikulua. Nafarroako Kultura Kontseilua.

1. Nafarroako Kultura Kontseilua Foru Komunitateko administrazioak kultur arloan duen

konsulta eta aholkularitzarako organoa da.

2. Kultur ondarearen esparruan, Nafarroako Kultura Kontseiluari honako eginkizun hauek dagozkie:

a) Foru Komunitateko administrazioari aholku ematea kultur ondarearen arloan.

b) Departamentu eskudunak eskatzen dizkion azterlanak egin eta txostenak ematea.

c) Departamentu eskudunak kultur ondarearen esparruko politika zehaztu eta gauzatzeko eskatzen dion laguntza ematea.

d) Kultur ondarea babestu eta ugaritzeko ekimenak plazaratu eta egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzea.

e) Nafarroako Foru Komunitateak haren kargu uzten dituen gainerako ahalmenak.

f) Foru lege honek eta antolamendu juridikoak bere esku uzten dizkion gainerako eginkizunak.

3. Nafarroako Kultura Kontseiluko kide berezko dira departamentu eskuduneko kontseilari titularra, kontseiluko burua izanen baita, eta departamentu horretan kultur arloko eskumenak dituzten zuzen-

daritza nagusietako titularrak. Erregelamenduz ezarritako kideez osatuko da, eta kulturaren arloan izen ona, jakintza espezializatua edo Kontseiluari ematen zaizkion funtzioen esparruan presentzia aitortua duten pertsonen artetik aukeratuko dira. Kideek beren eginkizunak betetzeagatik erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasoko dituzte.

4. Erregelamenduz ezarriko da Nafarroako Kultura Kontseilua nola antolatu, osatu eta arituko den.”

Parlamentuko batzordeak maiatzaren 23an egindako bilkuran, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak adierazi zuen hiru-hilekoaren azken egunetan egingen zela Nafarroako Kultura Kontseiluko kideen berritze partziala. Urteko laugarren hiruhilekoa hastear dago, eta auzi horri buruzko albisterik ez dagoenez, ondo-koa jakin nahi dut:

Gobernuak noiz egingen du Nafarroako Kultura Kontseiluko kideen berritze partziala?

Gobernuak ba al du asmorik aipatu kontseilua-
ren osaketan, antolamenduan eta funtzionamen-
dun muntako aldaketak egiteko?

Iruñean, 2012ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen duen 012 zerbitzuari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen duen 012 zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

1. Nafarroako Gobernuak –Toki Administrazioiko Departamentuak– aurreikusita al dauka 012 Zerbitzua, zeina gaur egun Animsa enpresa publikoak kudeatzen baitu, CICNA enpresari esleitzea?

2. Hala baldin bada, behartuta al dago alde aurretik lehiaketa publiko bat egitera? Halakorik egin al du? Esleipenaren espediente osoaren kopia jaso nahiko genuke, baldin eta halakorik badago.

3. Enpresa esleipen-hartzaile berria behartuta al dago zerbitzua une honetan Animsa enpresan ematen duten langileak subrogatzera?

4. Hala baldin bada, haien gaur egungo lan baldintzak errespetatuko al dira enpresa esleipen-hartzaile berrian?

Iruñean, 2012ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, unibertsitate tituludunek praktikak egin ahal izateko programari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, unibertsitate tituludunek praktikak egin ahal izateko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Azaroaren 17ko 679/2003 Foru Dekretuaren bidez sortu eta arautu zen unibertsitate-tituludunendako Praktiketarako Programa, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan jardun zezaten.

Foru dekretuaren arabera, programa teoriko eta praktikoa izanen da eta bi urte iraunen du.

Foru dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez, "urtero praktiketarako unibertsitate-tituludu-

nak ebaluatuko dira, eta prestakuntzaldiko bigarren urtera pasatzeko ebaluazio bat gainditu beharko da.”

Foru dekretuaren 7. artikuluan jasotzen denez, urteko ebaluazio guztiak gainditzen dituzten unibertsitate-tituludunek gaitasun diploma bat hartuko dute, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak egina.

2011ko martxoaren 18an, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 365/2011 ebazpena argitaratu zen NAO-n; haren bidez, unibertsitateko zortzi tituludun praktikaldiko lan-kontratuaren bidez kontratatzekeo deialdia onetsi zen, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan aritzeko.

Ebazpen hartan, unibertsitateko zortzi tituludunak hautaprobek bidez hautatzeko prozedura ezarri zen, epaimahai kalifikatzailea izendatu zen eta kontratuak bi urtekoak izanen zirela zehaztu zen, bai eta, 679/2003 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, praktikaldiaren amaieran gaitasun diploma bat emanen zela ere.

Unibertsitateko zortzi tituludun horiek hautatu eta NAPI-n sartu ziren, praktiketako kontratuarekin, 2012ko urtarrilean. Hortaz, kontratuaren bi urteak 2013ko abenduan bukatu beharko liriateke.

Halere, Nafarroako Gobernuak NAPI desagerarazi izanak ziurgabetasuna dakar hartutako konpromisoak betetzeari dagokionez.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

– NAPI erakunde autonomoa desagertzea ekarri duten antolamendu-aldaketen ostean, zertan da unibertsitate tituludunentzako praktiketarako programa?

– 365/2011 Ebazpenarekin bat sinatutako praktiketarako programek 2013an jarraituko dutela ziurtatzen al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta erakunde hori osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta erakunde hori osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseiluetako kideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko enpresa publikoen eta erakunde horren beraren administrazio kontseiluetako kideen eta zuzendari-kudeatzaileen zerrenda.

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, betetako gastuari buruzkoa.

JOSÉ FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, betetako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari J. Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1.- Zenbat egiten du Nafarroako Foru Komunitatean, Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, 2011n guztira betetako gastuak?

2.- 2011n egindako gastutik, zein izan da Nafarroako Gobernuak betetako gastua, eta zein Europar Batasunak Feader programaren bitartez betetako?

3.- 2011n egindako gastuetatik, Nafarroako Gobernuak nahiz Europar Batasunak ardatz bakoitzera bideratutako zenbateko osoak xehakaituta:

a) Zenbat diru bideratu da 1. ardatzera (nekezarritza sektorearen lehiakortasuna)?

b) Zenbat diru bideratu da Feader programako 2. ardatzera (garapen iraungarri eta ingurumenarekiko begirunetsua)?

c) Zenbat diru bideratu da 3. ardatzera?

d) Zenbat diru bideratu da 4. ardatzera (Leader)?

Iruñean, 2012ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: J. Fernando Ibiltzieta Olleta

Galdera, Tuterako Ospitaleko gaueko osasun-garraioa kentzeari buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Tuterako Ospitaleko gaueko osasun-garraioa kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan.

Orain dela gutxi jakin izan dugunez, Osasun Departamentuak erabaki du Tuterako Ospitaleko gaueko osasun-garraioa kentzea. Zerbitzuak hiru urte zeramatzan funtzionatzen, eta pertsona zaharrei eta mugikortasun murriztukoiei ematen zien zerbitzu; zerbitzua kentzearen ondorioz, pertsona horiek ospitaleko korridoreetan itxoin behar-kodute, harik eta etxera eramanen dituen garraio arrunta baliatzeko modua izan arte.

Sistemaren eraginkortasunari buruzko eztabaidaz harantzago –ikuspuntu askotatik egin liteke horren balorazioa–, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak hauxe jakin nahi du:

Galdera:

- Osasun Departamentuak aurreikusi al du ordeko inolako neurririk, aurreikus daitekeen arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2012ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak bermatzen ote duen datozen aurrekontuetan ez duela jaitsiko zerbitzu publikoen diru-horniketa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak bermatzen ote duen datozen aurrekontuetan ez duela jaitsiko zerbitzu publikoen diru-horniketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta, Nafarroa Baiko legebiltzarkide naizen horrek, hurrengo premia handiko galdera egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari andreari:

Lehendakari andreak ematen al du bere hitza lehentasun osoa emanen diela eta Nafarroako Gobernuak bermatuko duela datorren urteko aurrekontuen egitasmoan zerbitzu publikoen diru-horniketa ez dela jaitsiko? Esan al dezake dagoneko, zehazki eta zenbakietan, zenbat eta zer ehunetikakoan jaitsiko duen Nafar Gobernuak 2013ko aurrekontu egitasmoan 1) irakaskuntzaren, 2) osasungintzaren eta 3) politika sozialen dirukopuruaren aurreikuspena?

Iruñean 2012ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Galdera, jakiteko zergatik utzi den bertan behera anbulantzia-zerbitzua
Reina Sofía ospitaleko larrialdietako zerbitzuan, gaueko hamarretatik
aitzina senda-agiria jasotzen duten gaixoentzat.**

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik utzi den bertan behera anbulantzia-zerbitzua Reina Sofía ospitaleko larrialdietako zerbitzuan, gaueko hamarretatik aitzina senda-agiria jasotzen duten gaixoentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den irailaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik utzi da bertan behera anbulantzia-zerbitzua Reina Sofía ospitaleko larrialdietako zerbitzuan, gaueko hamarretatik aitzina senda-agiria jasotzen duten gaixoentzat? Nafarroako Gobernuak ordezeko zer neurri hartuko du senda-agiria jasotzen duten gaixoak goizeko zortziak arte artatzeko?

Iruñean, 2012ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakiteko zer erabaki hartuko dituen Nafarroako Gobernuak, Alderdi Popularrak Madrilen gauzatzen ari den murrizketa-politikak ikusita.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer erabaki hartuko dituen Nafarroako Gobernuak, Alderdi Popularrak Madrilen gauzatzen ari den murrizketa-politikak ikusita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Alderdi Popularrak daraman murrizketa-politiken aurka Madrilen izandako arbuio eta mobilizazio etengabeak eta kontaezinak ikusita –Nafarroako Gobernuak Nafarroan inposatzen ditu politika horiek–, zer erabaki hartuko ditu Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2012ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2012ko eztabaida dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2012ko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzartearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, Gobernuak lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean izan ezik, Legebiltzarreko Osoko Bilkura berezia egiten da erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko.

Artikulu horren lehen idatz-zatian adierazten denez, Nafarroako Gobernuak erkidegoko politika orokorrari eta egoerari buruzko komunikazio bat igorri ahal izanen du Parlamentura, osoko bilkura horretan eztabaidatzeko.

Bistan da Foru Komunitateko egoeraren ezauzgarri nagusia bizi dugun atzeraldi ekonomiko larria dela, Espainiako gainerako lurraldeei eta Europaren zati handi bati bezala Nafarroari ere eragiten baitio.

2011ko udaz geroztik, jarduera ekonomikoaren jaitsierak, enpresentzako finantzaketa urriak eta kontsumoaren uzkuak ondorio bereziki latzak ekarri dituzte Nafarroan; faktore horiek guztiek bertako arazo larriena areagotzen dute, langabezia, alegia. Gure erkidegoan, berrogeita zortzi mila lagunetik gora daude lana topa ezinik gaur egun; populazio aktiboaren gaineko portzentaia, 16,41ekoa, Espainiako gainerako erkidegoekin alderatuta apalenetako bat bada ere, esan gabe doa onartezina dela.

Atzeraldi ekonomikoaren beste ondorioetako bat Foru Ogasunaren diru-sarreren jaitsiera da, eta zorpetzearen gehikuntza, horrenbestez, 2011ko ekainean eratu zenetik, Nafarroako Gobernuak aurrekontuetako doikuntza zorrotzak egin ditu, ezinbestean, baina halere aurreikusitako zorpetzea 923 milioi euro handiagoa izanen dela legegaldi honetan, eta 2014an gure zor publikoak, guztira, 3.906 milioi euro eginen duela.

Zenbait arrazoi direla eta, nahitaezkoa da 2012rako eta hurrengo urteetarako ezarritako defizit helburuak betetzea, besteak beste, Aurrekontu Orekari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen 2/2007 Legegintzako Errege-dekretua, kreditu urria eta Nafarroak hazkunde ekonomikoaren bidean lehenbailehen berriz sartzeko premia -horrek ahalbidetuko baitu enplegua sortzea eta aurrezki gordinaren bolumena berreskuratzea, osasun, hezkuntza eta gizarte ongizatearen sistemak eta, halaber, inbertsio proiektuak finantzatzeko beharrezkoa dena-.

Krisialdiaren ondorioak arindu eta ekoizpen jarduera sustatzen duten neurriak eraginkorrak izan daitezten, ahalik eta babes politiko, sozial eta ekonomikorik handiena behar denez, Nafarroako Gobernuak aditzera ematen du hitzarmenak eta adostasuna lortzeko borondate osoa duela, Foru Komunitateak azken urte hauetan ezagutu duen garapen nabarmena horietan oinarritu baita, neurri handi batean.

Hastera doan ikasturte politiko honetan, Nafarroako Gobernuak zenbait proposamen aurkeztuko dizkio Nafarroako Parlamentuari, honek onets ditzan: egungo egoera zail honetara egokitutako aurrekontu orokorrak 2013rako, zerga sistemaren erreforma, toki entitateen maparen egokitzapena, sektore publikorako erreformak eta erakunde politikoaren arrazionalizazioa.

Moderna Planak ezarri zuen zein den jorratu beharreko bidea Nafarroako alderdi sendoenak sustatzeko, eta gure gizartea ekintzaileagoa, sortzaileagoa, berritzaileagoa, solidarioagoa izan dadin, baita nazioartekoan tokia izan dezan ere; aurrerantzean ere nahitaezkoa izanen da plan hori mamitzea eta gure erkidegoarentzat berebiziko garrantzia duten proiektu batzuk gauzatu eta amaitzea, hala nola Nafarroako Ubidea edo Abiadura Handiko Trena.

Ekoizpen-egitura lehiakorra edukitzen eta Espainian arlo horretan lider izaten jarraitzeko, I+G inbertsioa inoiz baino garrantzitsuagoa dela sine-tsirik, ahalik eta erraztasun gehien eman beharko ditugu ikerketa zentro berriak irekitzea eta balio erantsi handiko lanpostuak sortzea ekarriko duten proiektu berriak hemen ezar daitezzen.

Etorkizunari buruzko zalantzak nagusi diren garai hauetan, Nafarroak eutsi behar dio bere autogobernuaren defentsari eta bere izaerarekin bat datozen neurri berekien aplikazioari, orain arteko irmotasun berarekin eta Espainia osoarekin solidario eta leial izateari utzi gabe.

ETA talde kriminalaren amaiera gertu dagoela dirudien honetan, Nafarroako Gobernuak eutsi egingen dio terrorismoaren biktimei eta haien senitartekoei orain arte agertu dien sostengu irmoari, eta zainduko du basakeria eta oinazea baizik eragin ez zituzten horiek ez dezaten lortu historia haien gogara erabiltzea, demokraziaren aurrean porrot egin izana nolabait moztortuz.

Aipatutako gaiei nahiz beste batzuei buruzko eztabaidak aukera emanen die nafar herritarrei jakiteko zein den haien ordezkari politikoen jarrera erantzukizunez eta errealismoaz jokatzeko eskatzen zaien une erabakigarri hauetan.

Horrenbestez, jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duela Parlamentuan Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidari bide emateko.

